

Ponenteek, baikortasun demokratikotik, sezesioa eta nazioarteko aitortza lortzeko faktore erabakigarri gisa gehiengo demokratikoak lortzea aipatu dute, gerra eta jatorrizko estatuaren deskonposizioaren logika historikoari kontrajarriz. Izan ere, azkeneko hamarkadetan sezesioa eskuratzeko biztanleen babesaz izatea geroz eta garrantzitsuagoa da, beharrezko baldintza bilakatu arte. Halere, ez da nahikoa arrazoi geopolitikoengatik. Horregatik, erabakitze eskubidea eta sezesioa adostu daitezke jatorrizko estatuarentzat duen kostuaren arabera.

Giltza-Hitzak: Erabakitze eskubidea. Sezesionismoa. Autodeterminazioa. Aldebakarreko sezesioa. Geopolitika. Sezesioaren kostua.

Los ponentes han mencionado que desde un punto de vista de optimismo democrático el hecho de conseguir mayorías democráticas es un factor decisivo para conseguir la secesión y la declaración de nación en contraposición a la lógica histórica de guerra y descomposición del estado original. De hecho, en las últimas décadas ha quedado patente la importancia cada vez mayor del apoyo ciudadano en el proceso para obtener la secesión. Tanto es así que se ha vuelto prácticamente imprescindible. De todos modos, los argumentos geopolíticos no son suficientes. Por eso, el derecho a decidir y la secesión se pueden negociar en función del coste que le suponen al estado original.

Palabras Clave: Derecho a decidir. Secesionismo. Autodeterminación. Secesión unilateral. Geopolítica. Coste de la secesión.

Les intervenants ont mentionné que, du point de vue de l'optimisme démocratique, le fait d'atteindre des majorités démocratiques est un facteur décisif pour une sécession et une déclaration de nation, par opposition à la logique historique de la guerre et de décomposition de l'État d'origine. Au cours des dernières décennies, l'importance croissante du soutien apporté par les citoyens au processus visant la sécession est évidente. Tant et si bien qu'il est devenu pratiquement indispensable. Toutefois, les arguments géopolitiques ne sont pas suffisants. Le droit de décider et de sécession peuvent ainsi être négociés en fonction du coût qu'ils représentent pour l'État d'origine.

Mots-Clés : Droit de décider. Sécessionnisme. Autodétermination. Sécession unilatérale. Géopolitique. Coût de la sécession.

Sezesionismoa eta erabakitze eskubidearen prezioa: Desanexioaren paradigma merkatze saiakera gisa

(Secessionism and the price
of the right to decide:
the de-accexation paradigm as an
attempt to reduce the price)

Discussant: Blas Mendoza, Asier

Euskal Herriko Unibertsitatea. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea.
Politika eta Administrazio Zientzien Saila.
Sarriena auzoa, z/g. 48940 Leioa
asier.blas@ehu.eus

BIBLID [ISBN: 978-84-8419-271-8 (2015); 256-283]

Sarrera

Ezgonkortasun garaiak behar dira estatu berriak jaiotzeko. Egoera horren adierazlerik hoberena gerra da, horregatik, deskolonizazio prozesuak alde batera utzita, historikoki estatu berrien sorrera gatazka militarren ondorioa izan dira nagusiki, nahiz eta horrek ez du esan nahi denak *sezesio gerrak* izan direnik. Adibidez, I. Mundu Gerraren emaitzetako bat estatu berri askoren jaiotza izan zen zenbait inperioen desagertzeari esker.

Baina zer gertatzen da herrialde bat politikoki eta sozioekonomikoki egonkorra bada? Posible ote da Mendebaldeko demokrazia-liberal¹ baten baitan sezesioa? Zaila da itsasoz beste aldeko lurrak ez badira subjektua. XX. Mendetik gaur egun arte oso kasu gutxi ditugu eskura. Irlanda eta Islandiaren sezesioak bereziak dira bi uharte direlako eta, hala ere, lehenengoak independentzia gerra bat behar izan zuen eta biek munduko gerra baten erdian gauzatu zuten prozesua. Testuinguru baketsuan, Mendebaldeko herrialde demokratiko batean gauzatutako independentzia bakarra Norvegiakoa izan zen 1905ean. Eskandinaviar herrialde honek bi berezitasun zituen, alde batetik jatorrizko estatua Suedia eta Norvegia arteko **konfederazio bat** zen, eta bestaldetik, autodeterminazio erreferendumean sezesioaren aldeko **botoek %99a** gainditu zuten².

Gauzak horrela, Bigarren Mundu gerratik hona Mendebaldeko herrialde batean ez da inoiz gertatu Estatuko zentroarekin lurrez konektatua dagoen eskualde baten sezesioa. Saiakera desberdinak egon diren arren, ez da horrelako abagune

1. *Mendebaldeko demokrazia-liberal* eta *Mendebaldea* terminoekin Europa mendebaldeko herrialdeak (Berlingo harresia erori aurretikoak), Amerikako Estatu Batuak (AEB), Kanada, Australia eta Zelanda Berria izendatzen dira.

2. Gizonezkoek osatutako hauteskunde eroldaren %85,4ak parte hartu zuen, hauetatik %99,95ak independentziaren aldeko babesa eman zuen. Emakumeek ez zuten botorako eskubidea, halere, norvegiar emakumeen 200.000 sinadura baino gehiago jaso ziren independentziaren alde, boto eskubidea izango luketen emakumezkoen erdia baino gehiago, kontuan izan behar da gizonezkoen aldeko boto kopuru osoa 368.208 izan zela.

seriorik izan 1995ean Quebecek bigarren aldiz aldebakarreko autodeterminazio erreferenduma ospatu zuen arte. Ezetak oso estu irabazi zuen botoen %50,58arekin. Orduetik, beste bi proiektu sezesionista mahai gaineratu dira azkeneko urteetan. Christine O'Neill-ek 2014ean Eskozian ospatutako erreferendumari buruz hitz egin digu. Edinburgheko eta Londreseko gobernuak adostutako arauak, kanpainako dinamika eta kontsultaren emaitzak azaldu dizkigu. O'Neillek garbi adierazi du sezesio proiektua ez dela oinarritu nortasun etniko-kultural batean, baizik eta proiektu zibiko eta sozioekonomiko batean. Horregatik, eztabaidagai nagusien artean hiru gai egon zirela azpimarratu du: a) moneta (libera britaniarra, euroa edo beste alternatibaren bat); b) balizko estatu berriaren integrazioa Europar Batasunean; eta c) herritartasuna eta mugak.

Eskoziako erreferendumean baietza atera izan balitz kanpainako hiru eztabaidagai nagusiak argituko ziren. Halere, sezesio negoziatu baten aurrean egoteak ematen duen lasaitasuna ezin da konparatu Kataluniako sezesio prozesu liskartsuarekin. Ferran Requejo katedradunak Kataluniari buruz hitz egiteko, lehenengo teoria demokratiko nagusiak errepasatu eta hauek sezesioaren paradigma nagusiekin lotu ditu. Izan ere, Kataluniak bere etorkizuneko estatusa erabakitzeko akordiorik ez du lortu Espainiako gobernuarekin eta, horregatik, aldebakarreko estrategia batean sartuta dagoelako oso garrantzitsua bilakatu da prozesu sezesionistaren legitimazio demokratikoa. Saideman-ek, Dougherty-k eta Jenne-k (2005: 607) azaldu bezala, talde sezesionista batek independentzia lortu nahi badu etxeko eta nazioarteko babesa beharko ditu.

Ildo horretan, sezesioaren diskurtsoak justifikatzeko Requejok azaldutako teoria plebisitario-demokratikoak hartu du garrantzia Katalunian, horretan oinarritzen da erabakitze eskubidea. Mario Zubiagak sakonki azaldu du eskubide honen zilegitasuna eta bere aldebakarreko aplikazio auto-konstituziogilea. Arazoa baina, estatu gisa auto-eraturako komunitate politiko horren nazioarteko egiaztatzea da. Hori gertatu ezean, zaila dirudi balizko Katalunia independente bat Europar Batasunaren markoan mantendu edo sartu ahal izatea. Eztabaida horri Requejok heldu dio aldebakarreko sezesio aldarrikapen baten ostean aurki daitezkeen eskenatokiak azaltzerakoan. Ildo horretan zentratuz, Juan José Alvarez irakasleak Europar Batasunaren ibilbide historikoa aztertu du sezesio, anexio eta desanexio gaietan, era berean marko juridikoa zein den gogoratu eta EBn barnean estatu berri bat jaioko balitz erakunde honen baitan mantentzeko edo sartzeko izango lukeen bide malakartsua azpimarratu du. Zailtasun asko daude EBk edozein barne sezesioari atea irekitzeko garaian, halere, historikoki erakunde honek jarrera malgua eta pragmatikoa izan du erronka desberdinen aurrean, zentzu horretan Alvarezek mahai gaineratu du borondate demokratiko argi baten aurrean EBk ezin duela bere araudia fosilizatu.

Sezesioa lortzeko bide alternatibo baten bila: botoak eta erabakitze eskubidea

Aurretik azaldu bezala, sezesioak gerra testuinguru batean gauzatzen dira. Salbuespenak gutxi dira eta ia denak eztabaidagarriak. Urrunago doa Josep Fontana historialari prestigiotsua³, honek dio independentzia gerra batekin soilik lortu daitekeela. Orohar, errealitate enpirikoari begiratzen badiogu eta gerra kontzeptua malgutasunez tratatzen badugu, Fontanak arrazoia du eztabaidarako tarte txiki batekin.

Hona ekarri dudan lehenengo irudian ikusi daiteke sezesioaren aldeko borroka klasikoa gerra izan dela, jatorrizko estatuaren aurka zuzenean edota zeharka nazioarteko gerra handiago baten testuinguru erdian. Bestalde, **XX. Mendetik aurrera geroz eta ohikoagoa bihurtu da gerra klasikoa botoen gerrarekin uztartzea**. Halere, autodeterminazioa legezko eskubide gisa egikaritua edo gutxienez jatorrizko estatuaren krisi eta deskonposizio testuinguru gabe egikaritua, itsasoz beste aldeko kolonietan aurkitzen dugu soilik. Bestela, boto bidez gauzatutako sezesio prozesu ia guztiek gertuko edo urrutiko lotura dute gerrarekin eta jatorrizko estatuaren deskonposizioarekin. Adibidez, Sobietar Batasun (SESB) ohiko lurraldeetan izaniko sezesio prozesuak ezingo lirateke azaldu Gerra Hotzaren amaiera gabe. 2014 urtean Andrius Kubilius⁴ elkarriketatu genuen, bera Lituaniako Fronte Popularra gisa eratu zen Sajūdis mugimenduko idazkari izan zen independentzia prozesuan. Sobietar Batasunak gerra galdu eta horren ondorioz, Kubiliusek azaldu bezala, independentzia lortzeko aukera politikorako egitura sortu zen.

Jason Sorens-ek (2012) azaldu bezala askapen nazionaleko mugimenduek egonkortasun edo erreforma prozesu egoeretan autonomismoa bultzatzeko joera dute burujabetza esparruak irabazteko, sezesiorako aukera politikorako egitura apropos bat lortu arte behintzat, hau da, krisi politiko, instituzional, sozioekonomiko edota gerra bat iritsi arte. Modu berean, hasieran Sajūdisek Perestroika lagundu eta babestu zuen. Babesak ez zuen asko iraun, izan ere, Kubiliusen hitzetan azkar konturatu ziren erreforma prozesu baten aurrean baino, sistema osoaren kolapso baten aurrean zeudela. Horrela Sajūdisek erreformismotik independentismorako aldatuta egin zuen.

Ikuspegi sinbolikotik sezesio prozesua martxan jarri zen 1989ko abuztuaren 23an, Baltikoko herrialdeetan askatasunaren alde giza-katea burutu zen egunean. Ondoren, 1990ean Lituaniako Sobiet Gorenerako hauteskunde demokratikoak ospatu ziren. Sajūdis ez zen aurkezten, baina hautagai ugari (independentiak eta alderdi desberdinketakoak) erakunde independentistarekin bat egiten zuten. Kanpainan eztabaida independentzia azkarra edo pausuz-pausu artekoa izan

3. 2013ko azaroaren 19an Josep Fontanari eginiko elkarriketa Publiko agerkari digitalean: <http://www.pubblico.es/politica/independencia-logra-guerra-independencia.html>.

4. Elkarriketa 2014ko ekainaren 20ean burutu zen Lituaniako legebiltzarrean. Andrius Kubilius Sajūdiseko idazkaria izan zen 1989 eta 1992 artean; Lehen Ministroa 1999tik 2000ra eta 2008tik 2012ra. Egun Lituaniako *Aberri Batasuna-Lituaniako Demokristauak* alderdi nazionalista kontserbadoreko liderra eta oposizio burua da.

1. Irudia. Independentzia lortzeko bideak

	Gerra bidez legitimaturiko sezesio prozesuak		Botoen bidez legitimaturiko sezesio prozesuak	
Estatua lortzeko modua, hau da, aldarrikatutako lurraldean indarkeriaren monopolioa lortzeko modua	<p style="text-align: center;">←→</p> <p>Borroka klasikoa Askapeneko gerra jatorrizko estatuaren aurka</p>	<p style="text-align: center;">←→</p> <p>Borroka klasikoa nazioarteko gatazkan Nazioarteko gerra</p>	<p style="text-align: center;">←→</p> <p>Jatorrizko estatuaren krisia/deskonposizioa Botere hutsunea Botoen gerra bidez bideratua (hauteskunde edota erreferenduma)</p>	<p style="text-align: center;">←→</p> <p>Autodeterminazioa Botoen borroka: Parlamentuan edota erreferendumean</p>
Independentzia aldarrikapena: aldebakarrekoa edo negoziatua (adostua)	Aldebakarreko aldarrikapena	Adostua (gatazka militarren emaitzen gainean: bake akordioak / gerra-amaiera hitzarmena)	Aldebakarreko aldarrikapena Adostua (nazioarteko ezagutza) edo ez adostua bada botoen gerrak amai dezake: gradu desberdinetako Indarkeriazko gatazkan	Adostua bada nazioarteko ezagutza automatikoa. Adostua ez bada: aldebakarreko aldarrikapena
Nazioarteko ezagutza: bai/ez/Partziala	Nazioarteko ezagutza bai garaipena lortu bada gerran (Ezagutzarik ez edo partziala garaipena ez bada osoa)	Nazioarteko ezagutza bai (partzialarekin soilik geratzen bada interes geopolitikoaren talkagatik izango da)	<p>Nazioarteko ezagutza Bai/Ez/Partziala</p> <p>Faktore hauen arabera (garrantziaren arabera sailkatua, elkar elikatu daitezke):</p> <p>1. Jatorrizko estatuaren krisiaren tamaina (geroz eta tamaina handiagoa orduan eta aukera gehiago nazioarteko aitortza lortzeko); 2. Geopolitika (Potentzia handi baten interes geoestrategikoen aurka joango balitz estatu batzuk ezagutza uka diezaiokete); 3. Babes demokratikoaren tamaina (geroz eta babes zabalagoa izan orduan eta aukera gehiago ezagutza lortzeko).</p>	

←→ Bien arteko harremanak egon daitezke eskenatoki batetik bestera salto eginez edo aldi berean emanez

Iturria: egjleak landua.

zen. Lehenengo posizioa Sajūdisek defendatzen zuen, bigarrena aldiz Lituaniako Alderdi Komunista independenteko sektore nagusiak (alderdi honetako beste sektore txikiago batek Sajūdisen babesua zuen). Emaitzak ez ziren txarrak izan komunistentzat, baina orohar 135 diputatuetatik 91 Sajūdisen aldekoak ziren (hauen artean 17 komunista), beraz, nagusitutako estrategia hausturarena izan zen.

Parlamentuak 1990eko martxoaren 11ean aldarrikatu zuen independentzia aldeko 124 botoekin, hau da, diputatuen %91,85eko babesarekin. Hauteskunde kanpaina independentziaren inguruan izan zen eta horri lotutako erabakia hartu zuen Parlamentuak. Halere, Sobietar Batasunari eskatu zioten Konstituzioan azaltzen zen autodeterminaziorako eskubidea egikaritzeko prozedura zehaztea, erantzunak ez zuen eskubide horrekin zerikusia: Lituaniar sezesioa bozkatu bai, baina erabaki hori SESB osoan erreferendum bidez berretsi behar zela adostu zuten sobietar agintariek. Praktikan Lituaniari geratu zitzaion bide bakarra aldebakarreko independentzia izan zen.

Sajūdisen jarraitzaileek gobernua osatu bezain laster estatu berriaren erakuntza hasi zuten. 1991ko urtarrilean sobietar indar armatuek zenbait instalakuntza estrategiko hartzeko operazio bat burutu zuten eta borroken ondorioz, ehunka zauritu eta hamahiru hildako egon ziren. Martxoan SESB bere batasuna sostengatzeko erreferendum bat ospatu behar zuela iragarri eta Lituaniako agintariek aukera hori aprobetxatu zuten otsailaren 9an, urtarileko gertakari odoltsuak gertu zezudela, independentziaren aldeko kontsulta ospatzeko. Partaidetza %84,7koa izan zen eta baiezkoak irabazi zuen %93,2arekin. Bigarrenez botoak erabili zituzten independentzia eskuratu eta legitimatzeko.

Lituaniako adibidea ekarri dut SESBeko lehenengo errepublika izan zelako independentzia aldarrikatzen. Bi hilabete beranduago Baltikoko beste bi errepublikek egingo zuten eta beranduago Georgiak. Gainontzeko hamaika errepublikek 1991ko abuztuaren 21eko Moskuko estatu kolpe saiakera ostean independentziak aldarrikatzen hasi ziren, ordurako garbi zegoen Sobietar Batasuna desagertzera zihobiala, are gehiago, ofizialki SESB desagertzeko erabakia Errusia, Ukraina eta Bielorrusiako presidentek hartu zuten eta horrela, errepublika batzuk gogoz kontra Estatu independente bilakatu behar izan zuten. Beraz, SESBen egon ziren hiru edo lau sezesio prozesu proaktiboak hartuko bagenitu, nazioarteko ezagutza lortzeko faktoreak (Ikusi I. irudia) alde zituztela ikusi daiteke: (1) Jatorrizko estatuak krisi eta deskonposizio sakon batean barneratua zegoen; (2) Ikuspegi geopolitikotik beste potentzien mesederako izan zitekeen Estatu berrien jaiotza (etsai edota arerio baten ahultzea esanahi zuelako); eta (3) gehiengo demokratiko oso zabalekin berretsi ziren aldebakarreko sezesioak.

Faktoreen sailkapena garrantziaren arabera da, horregatik, nazioarteko ezagutza ez zen etorri Sobietar Batasuneko estatu kolpe saiakerak porrot egin zuen arte, hau da, nazioarte mailan SESBren deskonposizioa erabatekoa eta atzerabuelta ezina izan zen arte. Sezesio horiek gertatzeko elementu klabea jatorrizko estatuaren krisia zen, beste biak aldiz lehenengo faktorea indartzeko balio zuten. **Gure ponenteek ordea, paradigma eta praxi berri baten saiakera esplikatzen digute. Honen arabera, sezesioa eta nazioarteko ezagutza lortzeko faktore nagusia be-**

zala gehiengo demokratikoa izatea proposatzen da, gerra eta deskonposizioaren logika kontrajarriz.

Kanpo faktorea demokraziaren muga: geopolitika.

Estatu normalizatu bat sortzeko bi elementu behar ditu proiektu sezesionista batek: (1) **Indarkeriaren monopolioa izatea, beharrezko baldintza estatua izateko, baina ez nahikoa nazioarteko aitortza erdiesteko eta beraz, (2) nazioarteko aitortza.** Historian ohikoena da lehenengoa eta bigarrena lortzeko gerrak paper garrantzitsu bat izatea. Baina azkeneko hamarkadetan beste elementu osagarri batek sekulako garrantzia hartu du: legitimazio demokratikoa izatea. XXI. mendean gehiengoaren borondate demokratikoa diskurtso politiko liberal-demokratikoan hegemoniko bilakatu da. Horri esker, egun inoiz baino posibleago dirudi independentzia demokratikoki eskuratzea. Errealitatea ordea ez da hain sinplea, gauza bat da diskurtsoa eta beste bat praxia.

Ferran Requejok hiru teoria nagusi azaldu ditu sezesioak argudiatzeko demokrazia liberaletan: kausa justua, nazionalista eta plebiszitarioa (ikusi bere idatzia). Ondo azaldu duen bezala, sailkapena diskurtsoak desberdintzeko balio du, nahiz eta praktikan teoria desberdinak nahastuak egon daitezkeen sezesio proiektu bat justifikatu edota gauzatzera. Kontua da errealitatean teoria hauen aplikazioa erabat arbitrarioa dela estatuen eta bereziki nazioarteko potentzien interes geoestrategikoen arabera. Azkeneko urteetan honen adibide garbiak izan ditugu, zein dira irizpideak estatu batzuk Kosovo ezagutzeko eta ez berriz Hego Osetia? Eta Hego Osetia ezagutzeko eta Kosovo ez? Eta Krimea?

Kausa justuaren eta nazionalismoaren diskurtsoen aplikazioan neurtzeko makil desberdinak erabili dira beti, eta orain baikortasun demokratikoaren garaian ez dira gauzak gehiegi aldatu. Historikoki diskurtso demokratiko-plebiszitarioa sezesionismoa justifikatzen zuten diskurtsoen kontra egiteko erabili izan da. Adibidez, sezesio proiektu batek kausa justua bat edota nazio baten biziraupena argudiatzen bazituen eta hau Mendebaldearen gogokoa ez bazen, azken honek demokrazia-liberalen izenean azpimarratzen zuen sezesioaren arrazoiak ezin zirela nahikoa izan biztanleen borondate maioritarioaren kontrakoak baziren. Edonola ere, behin horrelako argudioak erabilia aukera dago argudio horien erabilpen proaktiboa egiteko mugimendu sezesionisten partetik. Azken batean, **Juan José Linz-ek (1986: 669) azaldu zuen bezala, demokratikoki ez da bideragarria lurralde bat estatu baten muga baitan mantentzea bere biztanleriaren borondatearen aurka.** Horregatik, gaur egun mugimendu sezesionistek beraien proiektuak justifikatzeko diskurtso demokratiko-plebiszitarioari garrantzia handia ematen diote. Erabakitze eskubidea jorera honen baitan jarri behar da, kausa justuan eta nazionalismoaren diskurtsoan lehian dauden partearen artean diagnostiko konpartiturik ez badago, gatazka kudeatzeko botoen borroka proposatzen da erabakitze eskubidearen erabilpenarekin.

Halere, gauza bat dira diskurtsoak eta beste bat errealitatea empirikoa. Munduko potentzia nagusiak printzipio demokratiko erradikaletan oinarrituriko se-

zesioak onartu edo gaitzetsi egin dituzte beraien interes geostrategikoen arabera eta ez lurralde jakin bateko biztanleen borondatea errespetatzeko. Esate baterako, independentzia prozesu batek gehiengo demokratiko bat badu, Amerikako Estatu Batuak defenatuko du baldin eta joko geopolitikoan komeni bazaio. Antzera gertatzen da beste bigarren mailako potentzietan, diferentzia da hauek ez dutela indar eta gaitasunik nazioarteko aitortza bat inposatu edo bultzatzeko.

Hartu dezagun Quebec, munduko joko geopolitikoan arazo handirik sortzen ez zuen kasu bat. Chantal Hébert-ek (2014) kontatzen duen moduan, Bill Clinton-ek 1995eko erreferenduma burutu aurretik, argi adierazi zuen baietza ateratzekotan Amerikako Estatu Batuak Kanadako gobernuaren edozein motako erantzuna babestuko prest zegoela, erantzun ez demokratikoa barne.

Orain hartu ditzaugun bi kasu gatazkatsu: Krimea eta Kosovo. Krimeako gatazka ez da berria, Kosovokoa ez zen bezala. Mendebaldeak Krimearen erabakitze eskubidearen aurka azaldu zen elkarlotutako bi argudio nagusi aurkeztuz. Lehenengoa: errusiar ejertzitoaren presentzia aktiboa eta erreferendumaren exekuzio azkarra salatzen zuen. Egia da, Krimeako erreferenduma plebiszitariora izan zen, hau da, alde aurretik Krimeako Parlamentuak hartutako erabaki bat berresteko funtzioa baino ez zuen. Horra arte ezer berririk ez nazioartean, baldintza antzekoetan egin dira sezesio erreferendum gehienak azkeneko hamarkadetan. Halere, XX. eta XXI. mendeko historian ohikoena aldebakarreko independentzia aldarrikapena izan da (askotan parlamentu ez demokratikoen egina).

Bigarren argudioa: Kosovo kasu oso desberdina da Krimearekin alderatuz, azken honetan identifikatu gabeko errusiar indar armatuek indarkeriaren monopolioa lortu zutelako penintsulan. Baina, Kosovoren alboa, Krimeako prozesua oso garbia izan zen. Askok ahaztu nahi izan zuten Kosovo indar militarrez Mendebaldeak hartutako lurraldea dela NBEren babesik gabeko gerra operazio baten ondorioz, hau da, nazioarteko zuzenbidea urratuz. Ordutik 16 urtetako okupazio militarra dago indarrean. Hau gutxi balitz, Kosovon garbiketa etniko ia perfektua egin da serbiarrak eta gainontzeko gutxiengoak ia desagerraraziz.

Bestalde, Kosovon ez zuten erreferendumik egin, baina jakin badakigu bere populazioaren gehiengoa sezesio-anexioaren alde zegoela. 2010ean, Gallup enpresak eginiko inkestaren arabera⁵, Kosovoko albaniarren %81ak Albania handiaren aldeko hautua egingo luke (Albania izan nahi zuten). Mendebaldeko potentziek erabaki zuten Kosovo independente izatea, praktikan Mendebaldearen mesedetan irredentismo kasua den arren (Ekialdeko Alemaniako kasua bezala, berezitasuna aurkitu eta justifikatzen da indarra baduzu, Errusiak Krimearekin egin zuen bezala). Kosovo mendebaldeko potentziek kontrolatzen duten lur eremua da, AEBk bere mugetatik kanpo duen base militar handiena du bertan (Camp Bondsteel) eta orohar, herrialdearen autonomia eskasa da arlo politiko, ekonomiko eta militarrean.

Bestalde, aspalditik Krimeako populazioak bere soberania berreskuratu nahi zuen. 1991, 1994 eta 2014ko erreferendumetan modu batera edo bestera garbi

5. Gallup (2010): *Balkan Monitor, Insights and Perceptions: Voices of the Balkans*.

geratu zen. 1992an Krimeako parlamentuak independentzia aldarrikatu zuen eta 1994ean burujabetza erreferenduma egin ostean, baina Errusia oso ahula zenez, akordio desberdinak sinatu ziren autonomiaren truke. Halere, hurrengo urteetan Kiev eta Krimea arteko gatazkak hamarnaka konta daitezke. Tartean, 1995ean Ukrainako Parlamentuak indargabetu egin zuen Krimeako Konstituzioa eta presidente kargua. Baina, 2014ean Ukrainan Presidentearen aurkako estatu kolpea⁶ gertatu eta nahasmenaren erdian, besteak beste errusiar hiztunen eta Krimeako eskualdearen kontrako keinu eta legeak onartu ziren, Errusiak Krimeako sezesioa eta anexioa gauzatzea lortu zuen. Horrelako baldintzek laguntzen dute sezesio prozesu bat, estatua krisi sakon batean dagoenean.

Kosovon eta Krimean ezegonkortasuna izan da klabea, Hego Osetian, Transnistrian eta beste zenbait kasutan izan zen bezala, baina nazioarteko potentziek izan duten erantzun desberdina moral bikoitzaren arabera izan da eta ez printzipio demokratikoen arabera. Izan ere, Ferran Requejok galderetako txandan azaldu bezala, estatuek herrialde baten independentzia aitortzen dute bi printzipio nagusiren arabera: interesak eta errealismo politikoa (*de facto*-ko errealitate bat da). Interesek azaltzen dute praxian aurki genezakeen moral bikoitza. Juanjo Alvarezek gogoratu digu EBko estatu guztiek ez dutela ezagutu Kosovoko independentzia, batez ere barne arazo sezesionistak izan ditzaketen horiek, eta orohar, ponentzia guztietan ezagutzaren inguruan egon daitezkeen arazoak tratatu badira ere, independentzia eskuratzea borondate demokratikoari lotuta agertu da nagusiki, konfiantza handia jarriz Mendebaldeko herrialde gehienek izango luketen jarrera liberal-demokratiko sendoan.

Errealitate enpiriko historikoa ordea, kontrakoa dio. Jatorrizko estatuaren krisi batetik abiatu ohi dira sezesio prozesuak. Batzuetan krisi hauek kanpotik bultzatu edo lagundu dira, horregatik nazioarteko testuingurua oso garrantzitsua izan da. Aipatu bezala, gerra da ezegonkortasunaren adierazlerik hoberena, baina Mendebaldeko herrialdeetan ez da horrelako edo antzeko muturreko egoerarik gertatu XX. Mende erdialdetik, horregatik, herrialde hauek ez dute inolako sezesiorik ezagutu (koloniak alde batera utzita). Ez da kasualitate bat Mendebaldeko herrialdeek beraien lurretan gerrarik eta sezesiorik bizitu ez izana, nagusigo inperialaren adierazgarria da eta zentzu horretan ez dirudi borondate demokratiko hutsean oinarrituriko balizko aldebakarreko independentzia prozesu batek erraz pitzatu ahal izango duenik Europar Batasuneko estatu aliatuen arteko babesia. Bestalde, egia da azkeneko hamarkadetan sezesioa eskuratzeko lurraldeko biztanleen babesia izatea geroz eta garrantzitsuagoa dela, ondorioz, **sezesio bat gauzatzeko gehiengo demokratiko bat izatea beharrezko baldintza bilakatu da, baina ez nahikoa**

6. 2014ko otsailaren 21ean Ukrainako oposizioak eta Presidenteak akordio bat sinatu zuten Frantzia, Polonia eta Alemaniako kanpo harremanetarako ministroen bitartekaritzarekin. Honen arabera, alderdi guztiek konzentrazio nazionalako gobernu bat osatu behar zuten, polizia erretiratu behar zen protesta plaza-tatik, hauteskundeak bederatz hilabete barru ospatuko ziren eta 2004ko konstituzioa berreskuratzen zen. Oposizioak ordu gutxitara akordioa ez zuen bete eta indarrez sartu zen Parlamentuan, 100 diputatuk baino gehiagok ihes egin zuten eta 2004ko konstituzioaren 1.11. artikuluan Presidentea kargugabetzeko zehazten den prozedura bete gabe eta eskatzen diren gehiengoak lortu gabe, oposizioak Janukovitx presidentea boteretik kendu egin zuen Estatu kolpe biolentoa gauzatu.

geopolitika arrazoiak medio. Guzti hau kontutan hartuta, jarraian planteatzen ditugun hiru hipotesi hauek dira gehien betetzen direnak azken hamarkadetako sezesio prozesuetan (inportantzia graduaren arabera ordenatuak):

Jatorrizko estatuaren krisia. H1: geroz eta handiagoa eta anitzagoa, orduan eta aukera gehiago sezesio bat gauzatzeko estatu berri bat sortuz eta nazioarteko ezagutza lortuz.

Nazioarteko laguntza. H2: Nazioarteko potentzia batek geroz eta interes handiagoa badu lurralde zehatz baten sezesioa bultzatzeko garaian, orduan eta gehiago indartuko dira mugimendu sezesionistak eta behin indarkeriaren monopolioaren bidez estatu berri bat eraiki ezkerro, errazagoa izango da nazioarteko ezagutza lortzea, gutxienez partziala.

Herritarren babes. H3: Geroz eta babes handiago herritarren partetik (bo-toetan kontabilizatua parlamentuan edota erreferendumean), orduan eta aukera gehiago estatu bat era baketsuan eraikitzeko eta honek nazioarteko ezagutza izateko.

Desanexioa eta sezesioaren kostua jatorrizko estatuarentzat

Independentzia prozesu gehienak gutxienez nazioarte mailako potentzia batek sustatu edota babestu ditu arrazoi geoestrategikoengatik. Ez da kasualitatea NATOko kideen artean sezesiorik gertatu ez izana. Horregatik, printzipioz Mendebaldeko estatu baten baitan aldebakarreko sezesio prozesu batek nekez lortuko luke Europar Batasuneko eta NATOko herrialdeen babes zabal bat. Horrek kontraesan bat sortzen du diskurtso demokratikoaren eta egonkortasun interesen artean. Kinka horretan, elkarlotuta dauden bi hipotesi planteatu daitezke:


Independentzia gradu eskaera. H_{21} : sezesio proiektuak geroz eta independentzia gradu handiagoa eskuratu nahi badu, orduan eta errespetu gutxiago azalduko dute jatorrizko estatuaren aliatuek sezesioa lortu nahi duen lurraldeko biztanleen borondatearekiko.

Aliantza geopolitikoak. H_{22} : sezesio proiektuak geroz eta gehiago urrundu nahi badu jatorrizko estatuaren aliantza geopolitikotik, orduan eta errespetu gutxiago azalduko dute jatorrizko estatuaren aliatuek sezesioa lortu nahi duen lurraldeko biztanleen borondatearekiko.

Kataluniak independentzia nahiko balu Europar Batasunetik edo NATOtik ateratzeko, Espainiako aliatuek kasu gutxi egingo liokete aldebakarreko balizko aldarrikapen bati, nahiz eta katalanen borondatea izan. Zeresanik ez balizko aldebakarreko independentzia aldarrikapena egin ostean Kataluniak ekonomian edota arlo politiko-militarrean Errusiarekin aliantzaren bat bilatu nahiko balu. Baldintza haue-tan garbi dago Mendebaldea ez litzatekela inoiz prest egongo irizpide demokrati-koetan oinarritutako sezesio bat onartzera, are gehiago, hipotesi sinesgarria litza-teke jatorrizko estatua babestea konkista militarreko operazio batean. Honen gertuko adibideak dira 2008an NATOk Georgiari eman zion babes Hego Osetia-

ren inbasio eta konkista militarra hasteko (nazioarteko indar baketzailen presentziari jaramonik egin gabe) eta 2014ean Europar Batasunak Ukrainari emandakoa Donbass eskualdearen kontra konkista militarreko guda bat hasteko.

2. Irudia. Jatorrizko estatura batek sezesio erreferendum bat onartzeko borondatea aurreratzeko eredu teorikoa



Iturria: egileak landua.

Errealitate gordin honen aurrean, borondate propioagatik edota pragmatismoagatik, Europar Batasunean dauden sezesio mugimendu gehienek garbi utzi nahi dute Europar Batasunean eta NATOn jarraitu nahi dutela. Hor kokatzen da Juan José Alvarez-en eta Ferran Requejoren ponentzietako arduraren nagusietako bat: balizko estatu berri baten aukerak Europar Batasunean sartzeko edo honekin izango liratekeen aukerak harreman normalizatuak izateko sezesio prozesu ez negoziatu baten

aurrean, bereziki Kataluniako kasuan pentsatuz. Bestela esanda, Europako sezesio proiektu gehienek borondatez edota pragmatismoz, intentsitate baxuko independentziak proposatzen dituzte Europar Batasunaren baitan, Mario Zubiagak bere hitzaldian desanexio bezala izendatu dituenak: ez gaude sezesio proposamenen aurrean, baizik eta desanexio proiektuen aurrean, udalerrietan gertatzen direnen antzekoak. Izan ere, ikuspegi ekonomiko, politiko eta militarretik loturak mantendu egingo omen dira, sezesio proiektuen kostua merkatuz jatorrizko estatuaren aliatuentzat.

Desanexioaren ideia oso indartsua da eta eskenatoki horrek lagun diezaioke Europar Batasun barruko proiektu sezesionistei. Halere, ezin da ahanzi Europar Batasuna ez dela federazio bat. Hasieran desanexioa dena behin nazioarteko ezagutza edukita sezesio bilakatu daiteke Europar Batasun barnean edo honetan dauden politiken aurkako estatu kritikoa bilakatuz. Gogoratu behar da Europar Batasunean erabaki batzuk aho batez hartu behar izaten direla eta jokalarri berri bat jokoa sartzeak kudeaketa arazoak sor ditzake epe motz edo luzean.

Desanexio planteamenduak bere osotasunean indarra hartuko luke Europar Batasun federal batean, federazioko estatu batetik beste bat jaiotzen denean, Suitzan gertatu izan den bezala. Baina hau ez da EBko kasua, estatuen klub honek behin eta berriro argi utzi du ez duela barne sezesionismoari buruz trataera adostu bat eta ez duela asmorik bide hori urratzeko, estatuen barne arazoa den heinean iragarri du ez duela esku hartuko. Ondorioz, jatorrizko estatuen partetik erantzun oso desberdinak aurkitu ditugu Eskoziako eta Kataluniako kasuetan. Hauek azaltzerakoan Alvarezek, Requejok eta Zubiagak Espainiaren eta Erresuma Batuaren kultura politiko desberdinak azpimarratu dituzte. Dударik gabe Erresuma Batuak tradizio demokratiko luzeagoa du eta uka ezina da honek nolabaiteko eragina izan duela Londres eta Edinburghen artean sezesio erreferendum bat adosterakoan. Halere, ezin da ahanzi Erresuma Batua konposaturiko estatu nazional anitz gisa aurkezten duela bere burua, ez da estatu bat nazio batentzat, baizik eta estatu bat lau nazioentzat. Bestalde, konstituzio idatzirik ez duenez, malgutasun legegile handiagoa du.

Aldagai hauek eta beste batzuk jasotzen dira bigarren irudian. Guztien arteik, sezesio erreferendum eskaera baten aurrean jatorrizko estatu baten jarrera auresateko, garrantzitsuena sezesioaren prezioa/kostua da. Hirugarren irudian balizko sezesioaren kostua jatorrizko estatuarentzat eta independentzia lortzeko botoen borroka arteko harremana aurkezten da, honetan hiru eskenatoki posible planteatzen dira: A eskenatokia adostasunean oinarriturik dagoen sezesio erreferendum bat da, kasu honetan, behin arauak adostu direla ez da espero inolako gatazka garrantzitsurik aplikazioan eta emaitzen kudeaketan. Halere, normalean puntu honetara iristen da aurretik gatazka bat egon zelako, B eskenatokiak planteatzen duen modukoa (normalean gerra testuinguruan) edota C kasuan bezalakoa (gerra testuingurutan eman ohi ez dena). Edonola ere, A eskenatokia B edo C egoeren ondorio bat izan ohi da, nahiz eta bada salbuespenen bat Eskozia bezala, inolako desobediencia edota gerra gatazka egon gabe kanpo sezesio erreferendum bat ospatu delako era adostuan.

Baina buelta gaitzen bigarren irudira. Zergatik adosten da sezesio erreferendum bat kasu batzuetan eta beste batzuetan ez? Aipatu bezala, aldagai askok azaltzen dute, baina gaitasun esplikatibo handiena duena da independentzia horrek duen kostua jatorrizko estatuarentzat. Horixe bera esplikatu digu Juan José Álvarezek (argitalpen honetan):

3. Irudia. Balizko sezesioaren kostua jatorrizko estatuarentzat eta independentzia lortzeko botoen borroka arteko harremana

Eskenatokiak	Boto borroka	Independentzia aldarrikapena	Estatu berriaren ezagutza
A) Sezesioaren kostua geroz eta txikiagoa izan jatorrizko estatuarentzat, orduan eta aukera gehiago adosteko erreferenduma	Adostutako erreferenduma	Adostutako aldarrikapena	Nazioarteko ezagutza
B) Jatorrizko estatuak erreferenduma debekatu eta oztopatu egiten du	Eskualdeko hauteskunde "plebisziarioak"	Aldebakarreko aldarrikapena. <i>Ondorengo bi aukera:</i> 1. <i>Negoziatzen da A eredura pasatzeko</i> 2. <i>Negoziaketa barik: nazioarteko aitortza bultzatzeko eta legitimitatea indartzeko erreferenduma(k)</i> →	Nazioarteko ezagutza interes geopolitikoaren arabera
C) Jatorrizko estatuak ez badu adosten baina ezta ere oztopatzen, legitimitate partziala izan dezake	Adostu gabeko erreferenduma → <i>(normalean emaitza hauteskunde arruntetan berresteko joera dago)</i> →	Aldebakarreko aldarrikapena → ↓ <i>Edo ondoren negoziatzen da A eredura pasatzeko</i>	Nazioarteko ezagutza interes geopolitikoaren eta gehiengo demokratikoaren arabera / ↓ <i>Ondoren negoziatu daiteke A eredura pasatzeko</i>

Iturria: egileak landua. Oharra: Saillapenak eta eskenatokiak ez dira errealtatera egokitzen era bat kasu guztietan, continuum bezala ulertu behar dira, baina era estatikoan azaldu ditut hobeto ulertzeko bakoitzak nola funtzionatzen duten.

“Escocia ha mostrado a Europa y al mundo cómo es posible desdramatizar el debate sobre el estatus de pertenencia a un Estado cuando las cuestiones identitarias y las vinculadas al reconocimiento de una realidad nacional coexistente dentro de una entidad estatal están previamente encauzadas gracias a una cultura política presidida por una voluntad de concordia y pacto que beneficia a todos” (Argitalpen honetan).

Hain zuzen ere, desdramatizatu egiten da historikoki nortasun eta ekonomia arloan homogeneousazio gradu altu bat inposatzeko gai izan delako Erresuma Batua. Christine O’Neill-ek esplikatu du erreferendumaren kanpainan ez dela egon nortasunari buruzko eztabaidarik, izan ere, eskoziar gizartearen gehiengo oso zabal bategen pentsatzen du Eskozia nazio bat dela eta nazio horren kide sentitzen da. Hortik aurrera, nortasun horren definizioa geografikoa da batez ere, horregatik, erreferendumaren eztabaida nagusia garapen ekonomikoan eta eredu sozioekonomikoan zentratu zen. Aldiz, O’Neill andereari erreferendumaren kanpainan hizkuntzak izan duen paperaz galdetu diogunean, honek zuzenean erantzun du ez dela eztabaidagaia izan. Ez da harritzekoa kontutan hartzen badugu ingelesak duen nagusitasun osoa, gaelikoa hiltzori egoeran dago eta eskozieraren (Scots) dialekto/hizkuntza izaera eztabaidatua da.

Daniele Conversi (1990 eta 2000), Michael Walzer (1996) eta Michael Billig (2006) azaldu dute gizarite moderno eta aberatsetan nortasun separatu bat elikatze elementu sinboliko eta praktikoa nagusia hizkuntza bilakatu dela azkeneko hamarkadetan. Baina, Eskozian nekez topa daiteke hizkuntzaren elementua Erresuma Batuarengandik separatzeko eta Eskoziako gizaritea sakonki zatitzeko. Zentzu horretan, Eskoziaren sezesio eskaera oso gertu dago desanexio ideiatik.

Erresuma Batuarentzat Eskoziaren balizko sezesio baten kostua txikia izango litzateke: Edinburgehak Londresekin izango litzuzkeen lotura ekonomikoak, politikoak eta linguistiko-kulturalak handiak jarraituko lukete izaten. Besteak beste, Eskoziako gobernuak proposatu zuen balizko estatu berriaren buru gisa Erregina jartzea eta libera mantentzea; bestela, praktikan Londres izango zatekeen zentro-finantzarioa eta hizkuntza ofizial efektibo bakarra ingelesa. Hizkuntzarena ez da nortasun kontu bat soilik, izan ere, herrialde baten etorkizunean eragiteko tresnarik eraginkorretako bat da informazio gizaritean, Erresuma Batuak bere hedabide eta produktu kulturekin Eskoziako arlo desberdinetan eragin gradu altu bat mantentzea posible izango luke. Hau ez da gauza berria, Erresuma Batuak Irlandako independentziaren eredu gertu dauka, non gaeliko hizkuntza Eskozian bezain gutxitua eta ahulduta dago eta, besteak beste, horri esker eragin eta kontrol linguistiko-kultural, ekonomiko, militar eta politiko garrantzitsua dauka Irlandan, baina baita ere Commonwealtheko estatuetan.

Beraz, jatorrizko estatuaren negoziatzeko borondatea esplikatzeko faktore klabea ez da tradizio demokratikoa baizik eta kostua. Zein kostu izango du jatorrizko estatuarentzat eskualde baten sezesioak? **Zenbat eta kostu handiagoa, orduan eta jarrera agresiboagoa izango du jatorrizko estatuak. Kostua subiranotasun (eragin) terminotan neurtu behar da (ikus 4. Irudia).** Sezesioa bilatzen duen lurraldearen balizko independentziak jatorrizko estatuaren kontrol ekonomiko, poli-

tiko edota kulturaletik erradikalki aldentzeko arriskua badu, sezesio prozesua gatazka biolento moduan bukatzeko probabilitatea handiagoa da.

Laugarren irudian, sezesioaren kostua jatorrizko estatuarentzat neurtu egiten da eta datua harremanean jartzen da sezesioa erabakitze erreferendumaren erregulazioarekin. Sinplifikatu nahi izan da datuen aurkezpena, horregatik Mendebaldearentzat esanguratsuak diren bost kasu jaso eta kanpo presioa bezalako aldagaiak kontrolatutzat eman dira jatorrizko estatuari dagozkion hiru aldagai garantzitsuenetan zentratzeko: nortasuna (azken kostuaren %50), ekonomia (%30) eta tamaina (%20)⁷.

Emaitzei begiratuta, garbi geratzen da aurretik azaldutakoa, jatorrizko estatuarentzat kostu merkea du Eskoziako balizko sezesioak. Modu berean, kostuak azaltzen du Serbiak izaniko jarrera demokratikoa Montenegroren erabakitze eskubidearekin eta gatazkatsua Kosovorekin. Funtsean, montenegroarrak eta serbiarrak nazio bera dira, hizkuntzaz, erlijioz eta sentimendu nazional historikoagatik⁸. Sezesioak zerikusi handia dauka Jugoslaviako gerretan serbiar nazioak jasandako estigmatizazioarekin eta Montenegroko parte batek nazioarteko komunitatean “normaltasunez” txertatzeko zuen borondatearekin, bestak beste, herrialdearen lehen industria den turismoa garatzeko. Ekonomiarri begiratzen badiogu, Serbia eta Montenegro arteko harremanak ez dira funtsean aldatu eta nortasunari begiratzen badiogu, Jenne-k eta Bieber-rek (2014) azaldu bezala, nazionalismoaren teoria instituzionalisten aurkako emaitzak eman ditu kasu honek: montenegroar nortasuna serbiarrarekin osagarria zenean edo antzeko esanahia zuenean, herritarren %91 identifikatzen zen montenegroar gisa, orain aldiz datua %44,5era jaitsi da.

Oso bestelako kasua da Kosovokoa. Historikoki albaniarrek eta serbiarrek eskualde honen kontrolagatik borrokatu dute, bi hizkuntza (albaniarra eta serbokroaziera) eta bi erlijio desberdin (musulmana eta ortodoxoa). Historiografia albaniarrak (Taibo, 1999: 21) kontatzen du nazio honetako kideak bueltatu ahal izan zirela Kosovora otomandarrek serbiar kontroleko eskualde hau inbaditu zutenean, ordutik albaniar gehiengoa administrazio inperialaren kolaboratzaile izan zen XIX. Mendean in-

7. Autorea ikerketa zabalagoa egiten ari da kasu gehiagorekin, baina amaitu gabe dagoenez eta Mendebaldeko testuinguru batean zentratu direnez ponenteen hitzaldiak, azkenean jatorrizko estatuarentzat kostuaren mekanismoa ulertzeko Mendebaldeko herrialdeentzat lagungarriak diren bost adibide hartu dira. Azkenik bi ohar: a) adierazle honen neurketa konplexuagoa egiten ari da autorea etorkizunean argitaratuko dena; eta b) kanpo presioa aldagaiaren kontrola eztabaidagarriagoa da Serbiako kasuan, baina bi kontra adibide dituzenez herrialdeak, Kosovo eta Montenegro, zeharka eta era inperfektuan kontrolatuak kontsideratuko ditugu azalpen kasu honetarako.

8. Desberdintasun nagusia ibilbide historiko-instituzionala izan da, Montenegro formalki independente bezala mantendu zen eta orohar, otomandarrek ez zuten beraien inperio barnean sartu, Serbia ez bezala. Horregatik montenegroarrek euren burua *superserbiar* bezala ikusi dute historikoki, garaitu gabeak izatearen mitoa elikatuz. Adibidez, XX. Mende hasieran Montenegroko erregeak serbiar nazioaz hitz egiten zuen montenegroarrak barruan sartuz. Jugoslavian serbiar interes nazionalak Montenegrok eta Serbiak defendatzen zituzten eta behin gerrak hasi zirela biek egin zuten bat “serbiarren defentsan”. Halere, formalki 1992an Montenegrok autodeterminazio erreferenduma ospatu zuen, %96ak Jugoslavian mantentzearen alde egin zuen. Guzti hau gutxi balitz, azken hamarkadetako bi politikari nazionalista serbiar famatuena montenegroarrak dira, Slobodan Milosević eta Radovan Karadžić.

4. Irudia. Sezesioaren kostua jatorrizko estatuarentzat (J.E.) eta harremana sezesioa erabakitzeko erreferendumaren erregulazioarekin

Herrialdeak	(1) Nortasuna Nortasun kostua (0-5) ⁹	(2) Ekonomia Kostu ekonomikoa (0-3)	(3) Tamaina Populazioa eta lurraldea (0-2)	Azken kostua (0 – 10)	Sezesio erreferendumaren erregulazioa
Eskozia J.E.: UK	0,5	1	1	2,5	Bai / gehiengo sinplea
Katalunia J.E.: Espainia	4	2,5	1	7,5	EZ
Kosovo J.E.: Serbia	5	1	1,5	7,5	EZ
Montenegro J.E.:SRB&MON	0,5	0,5	0,5	1,5	Bai / %50 p.h. %55 bai
Quebec J.E.: Kanada	3	2	1,75	5,75	Bai / gehiengo argia, zabala

Iturria: egileak landua.

dependentzia borroka hasi zuten arte. Aldiz, serbiarrek otomandar inperioa beti identifikatu zuten etsai bezala, honen eskuetan galdu zuten Serbia osoa (Kosovo barne). Ordutik otomandarren etsai gisa mantendu ziren beti Kosovon eta otomandarrek okupatzen zituzten gehiengo eslaviarreko gainontzeko eskualdeetan. Ez da kasualitatea egun Kosovo independentean Turkiak eragiteko gaitasuna handitu izana, honek Serbiarentzat Kosovoko sezesioaren kostua garestitu egiten zuen ere bai.

Quebec eta Kanada arteko harremanari begiratzen badiogu, hirugarren Iru-diko C eskenatokia eman zen Quebecen. Gutxitan ematen den kasu bat da, bi aktoreen artean ez zen sezesiorako erreferendumik adostu, baina Quebecek bere kabuz antolatutako zituen bi kontsulta, inolako balio loteslerik gabe eta Kanadako batasun legeak urratzen zituen proposamen batekin. Halere, erreferendumak normaltasunez ospatu ahal izan ziren eta bigarrean, behin botoak zenbatuta, baiezkoa gertu egon zen irabaztetik, horregatik, Kanadako estatuak azkenean prozedura erregulatzen bukatu zuen.

Quebec independente bat jatorrizko estatutik gehiago urrunduko litzateke Eskozia independente bat baino, besteak beste, hizkuntza hegemoniko desberdin bat izango duen estatu bat litzatekelako. Horregatik, alde zuzenik ez zen adostutako erreferendumik, baina Quebecen aldekarreko erabakitze eskubidea egikaritzuz

9. Nortasun kostua: Hizkuntza desberdin bat nagusituko bada balizko Estatu berrian, jatorrizko estatuak duen eragina hedabideen bitartez nabarmen txikituko bada, nazioarteko aliantza berrietan sakonduko bada balizko estatu berria (adibidez, aurreko potentzia inperial berri batekin harremanak estutuz eta jatorrizko estatuarekin ahulduz)... Guztien sintesi bezala: urrunketa politiko-kulturala emango bada.

lortu zuen Kanadak onartzea sezesioaren aukera. Halere, Eskoziako erreferendua izan dituen baldintzak baino gogorragoak jarri zaizkio Quebecen ospatu daitekeen balizko sezesio erreferendum bati: gehiengo garbi batek egin beharko luke baietzaren alde. Gehiengoa ez dago zehaztua eta gobernuak zehaztu edota emaitza interpretatu dezake.

Azkenik, Kataluniako balizko independentzia aztertzen badugu, Quebec, Eskozia eta Montenegro kasuen alboan kostu ekonomiko, politiko eta kultural oso handiak izango lituzke Espainiar estatuarentzat. Horregatik, hirugarren irudiko B eskenatokian dago Katalunia, jatorrizko estatuak erreferenduma debekatu egin zuen eta orain balizko sezesio aldarrikapen demokratiko bat egiteko duen irtenbide bakarra hauteskunde "plebiszitarioak" dira. Baina posible ote da prozedura honen bitartez independentzia eskuratzea?

Aldebakarreko sezesioaren kostua: gehiengo zabalaren beharra

Hasieratik Kataluniako gobernuak independentzia lortu nahi izan zuen estatuaren legalitatearen baitan, adostuz erreferendum bat. Baldintza hauetan, estatu berriaren nazioarteko aitortza automatikoa izaten da. Halere, aurretik ikusi dugun bezala, kontsultak adostu egin ohi dira gatazka bortitz (askotan armatu) baten amaiera kudeatzeko modu gisa. Salbuespenen artean Eskozia edo Montenegroko kasuak ditugu sezesio proposamen merkeak zirelako jatorrizko estatuarentzat, bestela, eskenatokiak halabeharrez gatazkara garamatza sezesio eskubide adostu bat lortu ahal izateko.

Bosgarren irudian azkeneko 25 urteetako sezesio prozesuak aztertu egiten dira eduki zuten babes demokratikoa azaltzeko. Kanpoan utzi dira Txekia eta Eslovakia, sezesio bat baino gehiago bi parteek adostutako federazio baten disoluzioa izan zelako, eta Namibia, bere independentzia prozesua 1989ko hauteskundeekin lotu zelako nahiz eta 1990eko otsaila eta martxoaren artean gauzatu zen formalki. Bestalde, Sobietar Batasuneko eta Jugoslavia ohiko errepublikak sartzerakoan erabili den irizpidea da independentzia prozesua proaktiboa izatea eta ez federazioaren disoluzio-usteltzearen ondorio bat. Irizpide hori jarraituz, SESBren kasuan Baltikoko hiru herrialdeak eta Georgia sartu dira analisisian 1991ko estatu kolpearen aurretik aldarrikatu zutelako independentzia. Jugoslavia ohiaren kasuan antzera egin da, kasu honetan 1991ean sezesio erreferenduma ospatu zituzten Eslovenia, Kroazia eta Mazedonia aztertu dira. Georgia eta Mazedoniako kasuak eztabaidagarriak izan arren, mimetismotik asko dutelako, azkenean proaktibotik dutena baloratu eta kontutan hartu dira.

Irizpide guztiak kontutan hartuta, guztira 21 herrialde jasotzen dira bosgarren irudian: independentzia aldarrikatu duten 17 herrialde eta independentzia lortzera ailegatu ez ziren beste lau. Eskozia eta Quebec azterketan sartu dira Mendebaldeko koloniak ez diren kasu bakarrak direlako. Ez da gauza bera egin Puerto Rico eta beste zenbait uharte-kolonietako erreferendumen emaitza negatiboekin, hauen kasuan nazioarteko eskubideak aitortu egiten baitie kontsulta egiteko eskubidea. Azkenik, Nevis eta Tokelauko kasuak jaso dira. Lehenengoak 1998an independen-

tzia lortzeko erreferendum bat ospatu zuen: %61,8ak alde bozkatu bazuen ere, uharte honek ez zuen independentzia lortu bi hereneko gehiengoa eskatzen zelako. Bigarrenak, Tokelauk, Zelanda Berritik berezitu eta honekin estatu asoziatu bilatzeko erreferendum bi ospatu zituen 2006 eta 2007an, bietan gehiengo zabalarekin irabazi zuen baietzak, baina erabakia gauzatzeko bi hereneko gehiengoa eskatzen zitzaion ere bai, ondorioz Tokelau oraindik Zelanda Berriko lurralde bat da.

Babes demokratikoaren datuak interpretatzen laguntzeko bi aldagai aurkezten dira. Alde batetik, sezesiorako prozedura adostua izan zen edo ez jasotzen da; eta bestetik, independentzia bilatzen zuen herrialdean zegoen nazio sentimendu zatiketa gradua baloratzen da. Horrela, sezesio batek sor dezakeen barne hausturaren kostua neurtu daiteke, garrantzitsua barne kudeaketarako, baina baita ere nazioarteko aitortza lortu ahal izateko.

Taulako bederlatzi herrialdeetan ez zegoen barne haustura esanguratsurik nortasunean, alde horretatik, ez dirudi kasualitatea adostutako zazpi erreferendumak hauen artean gertatu izana. Kasu gehienetan gehiengo bereziak zehaztu ziren, Montenegron %50eko gutxieneko partaidetza eta %55eko gehiengoa, Ekialdeko Timorren eta Hegoaldeko Sudanen %60ko partehartzea eta %60ko gutxienekoa independentziaren alde, eta azkenik, Nevis eta Tokelaun %66,7 gehiengoa eskatzen zen sezesioa gauzatzeko¹⁰. Beraz, nazioarteko praxian adostutako erreferendum gehienetan baldintza desberdinak jartzen dira baietza loteslea izan dadin. Areago, Lituaniak eta Esloveniak beraien sezesiorako prozedurak aldebakarreko estrategia bidez bideratu zituzten nazio homogeen bakarrik izan ziren, baina halere, gutxieneko gehiengo zabal batzuk zehaztu zituzten. Lituaniako parlamentuak independentzia aldarrikatzeko bi hereneko gehiengoa behar zuen eta erreferendumaren bozketan %91,8a lortu zuen. Esloveniak erreferenduma baliagarria izateko %50eko partehartzea minimoa zehaztu zuen legez eta horrez gain, Esloveniako gobernuak¹¹ argi utzi zuen bi hereneko gutxieneko partaidetza eta %60tik gorako baiezkoko kopurua lortzea zuela erronka gisa independentzia baldintza onetan gauzatzeko; azkenean partehartzea %93,3koa izan zen eta baietzak %94,8a eskuratu zuen.

10. Egokia izan daiteke hemen gogoratzea 1946an Faroe Uharteek (Danimarka jatorrizko estatua) independentzia erreferenduma ospatu zutelako, %67,5ak partehartu zuen eta %50,7ak alde bozkatu zuen, halere ondoren parlamenturako hauteskundeetan unionistek irabazi zuten eta inoiz ez zuten independentzia eskuratu.

11. Kroaziako eta Mazedoniako gobernuak antzeko adierazpenak eta antzeko neurriak hartu zituzten ondoren. Adibidez, Mazedoniak gutxieneko partaidetza %50koa izateko beharra erregulatu zuen legez. Kroaziak bere aldetik, Esloveniak bezala erronka jarri zuen %66,7 partaidetzan eta %60ko gehiengoan. Mazedonian partaidetza %75,7koa izan zen eta %96,4ak independentziaren alde bozkatu zuen; Kroazian partaidetza %83,5koa izan zen eta baiezkokoak %93,2a lortu zuen.

5. Irudia. 1990etik 2014ra bitarteko sezesio prozesuen babes demokratikoa

Herrialdea	Nazio / nortasun-sentimenduagatik sakonki zatitua?	Sezesio prozedura adostua? (Bai /Ez) + Sezesioa aldarrikatzeko finkatutako gehiengoa	Hauteskunde (H) edota erreferendumen (E) % partaidetza / baiezkoaren %	Independentzia aldarrikatzeko* erabilitako gehiengoa (%) P=Parlamentua E=Erreferendum
Abjasia (1991) ¹²	Bai	Ez	52,3 E	99,0 E
Ekialdeko Timor (1999)	Ez	Bai: ph %60/+%60	98,6 E	78,5 E
Eritrea (1993)	Ez	Bai	98,5 E	99,8 E
Eskozia (2014)	Ez	Bai: irabaztea	84,5 E	44,7 E
Eslovenia (1991)	Ez	Ez: ph %50	93,3 E	94,8 E
Estonia (1990)	Bai	Ez: bi heren	78,2 H	69,5 P
Georgja (1991)	Partzialki	Ez	90,6 E	99,5 E
Hego Osetia ¹³	Partzialki	Ez	72,0 H	+90? P
Hego Sudan (2011)	Ez	Bai: ph %60/+%60	95,9 E	98,8 E

12. Abjasiako kasua berezia zen herrialdearen errolda etniko-nazionalen gehiengoa ez zelako abjasia-rra. Alde batetik, Sobietar Errepublikak Sozialista bat izan zen 1931ean Stalinekin Errepublikak autonomo gisa Georgian sartu zuen artean. Ordutik aurrera asko georgiartu eta aniztu zen bertako konposizio nazionala. 1989ko erroldaren arabera: georgiarrak %45,7, abjasia-rrak %17,8 (1887an %85,8), armeniar-rrak %14,6, errusiarrak %14,3 eta greziarrak %2,8. Orohar, abjasia-rrak aliantza bat garatu zuten gairontzeko gutxiengoekin georgiarren aurka, halere, gehiengo demokratikoen ikuspegitik ez zegoen gehiengo argirik, horregatik Abjasiako gobernuak ez zuen sezesioa bultzatzeko erreferendumik egin ez eta hauteskunde "plebisitariario" argirik. Horren ordez, Abjasia-rrak 1991ean Batasun Tratatu Berriaren erreferenduma aipatzen du legitimazio demokratiko gisa (Wheatley, 2012: 69-70), tratatu honek Sobietar Batasunaren ordez jaioko zen federazioa edo konfederazioa bideratu nahi zuen, erreferendum horri boikota egin zion Georgiak baino ez Abjasia-rrak, kontsulta horren datuak dira bosgarren irudian erabiltzen direnak. Partaidetza %52,3koa izan zen, georgiarrak boikot egin ziotelako, eta batasun berriaren aldeko emaitzak %99a lortu zuen. Georgiak bere aldetik independentzia aldarrikatzeko erreferenduma egin zuenez, hor dibortzioaren justifikazio demokratikoa argudiatzen du Abjasia-rrak. Edonola ere, gizartea oso zatitua zegoen eta horren ondorioa gerra izan zen. Abjasia-rrak gerrarekin irabazi zuen independentzia eta hamarnaka milaka georgiar ihes egin behar izan zuten. Horren ondorioz, egungo populazioaren banaketa nazionala honakoa da (2011): abjasia-rrak %50,7, georgiarrak %19,2, armeniarak %17,4, errusiarrak %9,1, greziarrak %0,6. Bestalde, 1994ean Abjasiako Parlamentuak onartu zuen konstituzioa bozkatzeko erreferenduma ospatu zen 1999an, partaidetza %87,6koa izan zen, gerra aurretiko hauteskunde erroldaren %58,5a. Aldeko botoak %97,7a izan ziren.

13. Hego Osetiako konposizio nazionala 1989an: osetiarrak %65,9, georgiarrak %29, errusiarrak %2,1 eta besteak %3,1. Halere, arazoak daude lehenengo independentzia aldarrikapenaren sostengu demokratikoen datuak jasotzeko. 1990eko abenduan Hego Osetiako Parlamentuaren hauteskunde "plebisitariarioak" ospatu ziren eta hortik ateratako parlamentuak aldarrikatu zuen independentzia (1991-11-28an). Partaidetza datua baino ez dugu: %72a (Sammut eta Cvetkovski, 1996: 12).

Herrialdea	Nazio / nortasun sentimenduagatik sakonki zatitua?	Sezesio prozedura adostua? (Bai /Ez) + Sezesioa aldarrikatzeko finkatutako gehiengoa	Hauteskunde (H) edota erreferendumen (E) % partaidetza / baiezkoaren %	Independentzia aldarrikatzeko* erabilitako gehiengoa (%) P=Parlamentua E=Erreferendum
Kosovo (2008)	Partzialki	Ez	44,9 H	90,8 P
Krimea (2014)	Partzialki	Ez	81,1 E	96,7 E
Kroazia (1991)	Partzialki	Ez	83,5 E	93,2 E
Lituania (1990)	Ez	Ez: bi heren Par.-n	71,7 H	91,8 P
Letonia (1990)	Bai	Ez: bi heren Par.-n	81,3 H	68,6 P
Mazedonia (1991)	Partzialki	Ez: ph %50	75,7 E	96,4 E
Montenegro (2006)	Ez	Bai: ph %50/+%55	86,5 E	55,5 E
Nagorno-Kara. (1991)	Partzialki	Ez	82,1 E	99,8 E
Nevis (1998)	Ez	Bai: %66,7 langa	58,0 E	61,8 E
Tokelau (2007)	Ez	Bai: %66,7 langa	87,7 E	64,4 E
Transnistria (1991)	Partzialki	Ez	78,0 E	97,7 E
Quebec (1995)	Partzialki	Ez	93,5 E	49,4 E

*Letra lodiz independentzia aldarrikatu zutenak. Iturria: egileak landua

Nortasun sentimenduagatik partzialki zatiturik dauden herrialdeen errealtatea anitza da. Sinplifikatze aldera bi eskenatokia azalduko ditugu. Kasu batzuetan nazio sentimendu edo hizkuntza nortasun desberdin eta kontrajarria duen gutxiengo garrantzitsu bat dago herrialde osoan zabalduta; eta beste kasu batzuetan herrialdea homogeneotasun gradu altua badu ere, baditu eskualde bat edo batzuk non beste nortasun bat azaleratu eta batzuetan nagusitzen den. Lehenengo kasuaren adibideak Quebec, Transnistria, Krimea edo Nagorno-Karabaj ziren; lehenengo eta bigarrenaren arteko trantsizioan Kosovo eta Hego Osetia zeuden; eta espresuki bigarren kasuaren adibideak Georgia, Kroazia eta Mazedonia ziren. Guztiek aldebakarreko independentzia aldarrikapena egin zuten, baina barne kohesioaren kostua txikitzeko eta nazioarteko aitortza lortzeko ezinbestekoa zen gehiengo zabalak lortzea eta horrela lortu zuten denek erreferendumean edo parlamentuan %90etik gorako gehiengoekin. Salbuespen bakarra Quebec izan zen, baietak erreferenduma galdu zuen eta, ikusi dugun bezala, ondoren se-

zesio prozedura erregulatu eta gehiengo zabal bat lortzeko beharra inposatu dio jatorrizko estatuak.

Azkenik nortasun ikuspegitik sakonki zatituak zeuden hiru nazioak ditugu, Abjasia, Letonia eta Estonia. Hiruren artean kasurik korapilatsuen a Abjasiakoa zen (ikus 10. Oin-oharra) eta gero, hurrenez-hurren Letonia eta Estonia. Azken bi hauek independentzia aldarrikatzeko babes demokratikoa hauteskunde bidez lortu zuten, Lituaniak, Hego Osetiak eta Kosovok bezala. Horrelako kasuetan ohikoena da behin aldarrikapena gertatu ostean erreferendumak ospatzea nazioarteko aitortzarako espedienteak hobetzeko. Abjasian prozedura honen erabilpen murriztua egin da, gehiengoak garbi ez zeudelako lehenengo eta ondoren bere jatorrizko populazioaren parte handi bat Georgian errefuxiatu zelako eta beraz, *de facto* independentzia lortu zueneko populazio kopuruetatik oso urrun egoteak arazo humanitarioa mahai gaineratzen du. Kosovoko kasua bestelakoa da, lehenago esplikatutako dugun moduan oraingo antolaketa instituzionala kanpo potentziek bultzatutakoa da era nahiko neokolonialean, horregatik ez zaie herritarrei zuzeneko hitza eman erreferendum bidez.

Beste batzuk aldiz, arazo gutxiago izan dituzte eta nahi beste erreferendum ospatu dituzte beraien nazioarteko aitortza bultzatu ahal izateko. Hego Osetiak 1992an kontrolatzen zituen lurraldeetan erreferenduma burutu zuen, %96,9ko partehartzearekin %99,9ak bozkatu zuen independentziaren alde. Erreferenduma 2006an errepikatu zen %95,1 partehartzearekin eta %99,8ko gehiengoarekin independentziaren alde. Transnistrian independentzia lortzeko tresna nagusia erreferenduma izan zen, baina 1991tik nazioarteko aitortzarik lortu ez duenez, 2006an beste bat ospatu zuen %78,5eko partehartzearekin eta independentziaren aldeko %98ko emaitzarekin. Azkenik, Baltikoko hiru herrialdeek behin independentziak aldarrikatu zituztela seriotasun gradu desberdineko kontsultak burutu zituzten estatu berria demokratikoki gehiago legitimatzeko. Lituaniak, lehenago aipatu bezala, 1991ko otsailaren 9an ospatu zuten erreferenduma, partehartzea %84,7koa izan zen eta baiezko botoek %93,2a lortu zuten (boto eskubidea zutenen %76,5). Letonian independentziari buruzko "herri-inkesta" bat burutu zuten 1991ko martxoaren 3an, partehartzea %87,6koa izan zen eta emaitzari begiratuta aldekoak %74,9 eta kontrakoak %25,1 izan ziren. Estonian egun berean ospatu zuten kontsulta %82,9 partehartzearekin, aldeko botoak %78,4 izan ziren.

Kasu guzti hauetatik ondoriozta daiteke aldebakarreko independentzia aldarrikapenek babes demokratiko oso zabala behar dutela, ez da baldintza nahikoa nazioarteko aitortza lortzeko baina bai ia beharrezko baldintza. Ondoren interes geopolitikoek esplikatzen dute aitortza; Hego Osetia, Krimea, Kosovo edo Transnistriako kasuek azaltzen duten moduan. Adibidez, Transnistriako, Hego Osetiako, Krimeako eta Ukrainako Donbasseko herrien borondate demokratikoaren aurkako adierazpenak maiz egin ditu Europar Batasunak,aldi berean gatazka hauen konponketarako negoziazioak bultzatu behar diren inguruan adierazpenak egin ditu, baina beti utzi du garbi jatorrizko estatuen mugen bortxa ezintasuna eta beraz, sezesioa erabakitzeko eskubidearen aurkako jarrera. Proposatutako zitekeen negoziazio bat eta akordio bat nazioarteko begiraleekin erreferendum neutral egi-

teko, baina behin eta berriro ukatzen da jakinda herrialde horietan gehiengoak garbi daudela sezesioaren alde. Azaldutakoaren frogarik hoberena Abjasia litzateke, kasu honetan ez da kasualitatea negoziazio proposamenetan erreferendumari atea ez itxia errefuxiatuak bueltatuko balira, izan ere, baldintza horietan Abjasian horrelako kontsulta batean sezesioak galdu dezake edo gehiengo eskasa lortu.

Edonola ere, batzuetan gatazkak bideratzeko halabeharrez erreferendumak negoziatu edota baimentzen dira, askotan nazioarteko bitartekaritzarekin edota presiopean. Independentzia lortu nahi duen eskualdean herri borondatea garbi badago, ohikoena da jatorrizko estatuak bakarrik onartzea kontsulta kanpotik inposatzen badiote edota gerra/gatazka batean galtzaile izan delako. Beste kontu bat da emaitzak ez daudenean garbi. Orduan, erreferenduma baimentzen duten jatorrizko estatuek abantaila handiak dituzte sezesio prozesua geratzeko, besteak beste hiru arrazoiengatik:

- a) Jatorrizko estatuak erreferendumaren baldintzak eta denborak negoziatzeko abantaila du, aukera gehiago ditu agenda kontrolatzeko.
- b) Estatu batek erabakitze eskubidea onartu badiu lurralde bati, erreferendumean botoa eman behar dutenen arteko parte batek independentziak sor dezakeen ezeگونkortasun ekonomikoaren aurrean (jendartea geroz eta zaharragoa eta geroz eta aberatsagoa orduan eta galtzeko gehiago eta beraz beldur gehiago) ezezkoaren alde egin dezake pentsatuz beti izango dutela joateko denbora, izan ere, independentzia eskuratzeko eskubidea aitortu diete.
- c) Jatorrizko estatuak aparatu instituzional oso bat du bere zerbitzura bere aldeko posizioak sendotzeko erreferendumaren aurretik eta kanpainan. Honen adibide bat da O’Neillen azaldu duena Eskoziako kasuan, Erresuma Batuen eskuhartzea garbi izan zen, baina behin erreferenduma galtzeko posibilitatea ikusi zuenean Lehen Ministroak, erreferendumaren norabidea aldatu zuen Eskoziari autonomian sakontzeko proposamen bat eginez.

Abantaila hauez gain, erreferenduma hasieratik adosten bada ez da egongo muturreko tentsio egoera bat eta horrek zaildu egiten ditu independentziaren aldeko posizioak indartzea, honen kasu paradigmaticoa Eskozia litzateke beste behin. Jason Sorensek (2012) esplikatzen bezala, askotan sezesiorako eskubidea onartua izateak independentzia lortu nahi duen eskualdearen presa independentzia eskuratzeko moteldu egiten du. Baina Katalunian gertatu dena kontrakoa da, tentsioa igotzen ari da lehenengo nazio izaera aitortzeko eskaera ukatu diotelako eta ondoren erabakitze eskubidea ukatu nahi izan diotelako. Bi elementu hauek independentismoaren gorakada bat sortu dute eta orain geroz eta beranduago adosten badu Espainiak erreferendum bat ospatzea Katalunian, orduan eta ahulagoa izango da bere posizioa agenda kontrolatzeko eta sezesioa saihesteko.

Ondorioak Kataluniari begira

2014ko azaroaren 9ko kontsulta partehartzailea zerbaitegatik izan bazen arrakastatsua desobedientzia zibileko ariketa neurtu bat izan zelako da, mugatua baino oso adierazgarria lortu zuen babes mailagatik. Botere esparru soberano bat irudikatu eta egikaritu zen Espainiar estatuaren kontroletik kanpo. Kataluniako jendartearen parte esanguratsu batek bozkatu egin zuen Espainiako legeek eta erakundeek agindu zuten debekua desobedituz. Halere, oraindik aldebakarreko independentzia aldarrikapen batek beharko lukeen gehiengo zabal horren adierazpena ez da izan.

6. Irudia. Kataluniako prozesu sezesionistaren etapak eta erreferendum prozedura adostu bat negoziatzeko dauden botere orekak etapa desberdinetan

	Nork kontrolatuko luke negoziaketaren agenda	Kontsulta adosteko Espainiak duen indarra baldintzak inposatzeko	Zein legalitate eta legitimitateren pean bozkatzen da	Independentismoaren hauteskunde indarraren garapena
2012ko Diada aurretik	Estatu espainiarra	Oso handia	Espainiarra	+
2013ko Diada aurretik	Estatu espainiarra	Oso handia	Espainiarra	++
2014ko Diada aurretik	Estatu espainiarra	Oso handia	Espainiarra	++
2014-11-9ko kontsulta aurretik	Konpartitua	Handia	Espainiarra	+++
Hauteskunde plebisitarioren aurretik	Konpartitua	Ertaina	Espainiarra	++++
Hauteskunde plebis-zitarioren ostean gehiengo sezesionista argiarekin	Kataluniako Parlamentua	Txikia	Trantsizionala	+++++
Independentzia aldarrikapenaren ostean	Kataluniako estatua	Negoziazio orekatua	Trantsizionala	++++++
Katalan estatuaren alde bakarreko erreferenduma	Kataluniako estatua	Negoziatorik ez, CATEk zehazten ditu	Katalana	+++++++

Iturria: egileak landua.

2014ko Diadan, Bartzelonako poliziak esan zuen 1,8 miloi pertsona atera zirela kalera. 2014ko azaroaren 9ko kontsulta zenbatu daitekeen mobilizazio bat zen aldetik, Bartzelonako poliziaren datuak aintzakotzat hartzen baditugu, 1,8 milioitik beherako partaidetza porrot bat izango zatekeen. 2012ko Kataluniako hauteskundeek inoiz izan duten partaidetza handiena izan zuten, besteak beste horri esker, alderdi abertzaleen emaitzak historikoak izan ziren: 1.787.656 boto, hauteskunde eroldaren %33a. Soberania zale alderdiek 2.147.361 boto lortu zituzten, hauteskunde eroldaren %39,6.

2014ko azaroaren 9ko Kontsultaren datuen arabera, gutxi gora-behera 2,3 miloi pertsonak hartu zuten parte. Botorako eskubidea zutenen %36aren bueltan (soberania zaleek lortu zuten hauteskunde emaitzen %39,6tik gertu). Baiezkoak 1.862.753 izan ziren, gutxi gora-behera boto eskubidea zutenen %29a, beste behin azkeneko hauteskundeetan alderdi abertzaleek izan zuten pisu erlatiboaren apur bat behetik.

Datu guzti hauek aztertuta, garbi dago azaroaren 9ko prozesu partehartzailerik ez zela tsunami bat izan. Baina zenbakietatik haratago baldin bagoaz, ikuspegi kualitatibo batetik independentismoarentzat egun handia izan zen. Bere legitimitatea inposatzen eta legalitatearen erakitzen hasi zen. Botoa ematera gerturatu ez ziren horiek ikusi zuten estatu alternatibo bat erakitzen ari dela, ez dakite oraindik zein motatako harremanak izango dituen estatu horrek Espainiarekin, baina geroz eta garbiago ikusten ari dira harreman mota zehazteko parte hartu beharko dutela beraien lehentasunak defendatu nahi badituzte. Izan ere, Kataluniako azkeneko hauteskundeetan CiUk bere programan ez zeraman independentzia era garbi batean. Orain aldiz, badakigu 1,8 miloi pertsona eta botorako eskubidea duten %30 inguru independentziaren alde konprometituak daudela. Lur zoru sendoa da independentismoaren hazkundera bultzatzeko.

Halere, Estatu espainiarrak oraindik tresna ugari ditu bere esku Kataluniako sezesio prozesua oztopatzeko (ikus seigarren irudia). 2015ko irailean ospatuko diren hauteskunde "plebisitarioren" aurretik erreferenduma adosten badu, legalitate katalanerako trantsizio bidea geratu eta espainiar legalitatearen parametroetara bueltatzeko gaitasuna izango luke. Halere, ez dirudi horrela izango denik. Hauteskundeetan ostean eta balizko aldebarreko independentzia baten aldarrikapenaren aurretik egiten badu, Espainiak oraindik agenda eta erreferenduma kontrolatzeko boterea izango du partzialki, nahiz eta ahulduta egon. Berriz, Estatu katalanaren aldarrikapen sinesgarri baten ostean negoziatzen badu, nazioarteko presiopean negoziatio orekatuagoa emango litzateke bi gobernuen artean eta Kataluniako legalitate berria indartuko litzateke.

Batez ere hiru aspektu dira negoziaketa batean ager daitezkeenak: gutxieneko partaidetza eskatzea erreferendumean, gehiengo bereziak behar izatea desanexioa gauzatzeko eta denborak (datak). Ikusi dugun moduan, Eskozian edo Montenegron nahiz eta jatorrizko estatuentzat bi sezesio proposamen merke izan, baldintzak inposatu zitzaizkien. Eskozian nazionalistek hiru erantzun posible nahi zituzten, baina Londresek data eta bi erantzun inposatu zituen. Montenegron hiru baldintza inposatu ziren: hiru urtetan erreferendumik ez izatea, gutxieneko par-

taidetz %50ekoa izatea eta desanexioa gauzatzeko baiezko botoek %55eko langa gainditzea.

Kataluniako kasuan, Ferran Requejok gogoratu bezala, ez da orain arte posible izan negoziazio bat Espainiar eta Katalan gobernuen artean eta teoria posible izan daitekeen arren, Requejok garbi du Espainiak borondate propioz ez duela bultzatuko. Kanpo presioagatik negoziazioa gertatzeko dagoen probabilitateaz galdetu diogunean, Requejo uzkur agertu da ere bai. Katedradunak independentzia behin aldarrikatuta eta denboran sostengatua bada, orduan akaso negoziazioaren bat etor daitekeela adierazi du. Posibilitateen artean, kanpo presioa ez du baztertzen, baldin eta Europar Batasunarentzat eta nazioarteko komunitatearentzat Katalunia “arazo” bilakatzen bada eta Kataluniak asmatzen badu bere independentzia saltzen nazioarteko komunitatean, zenbait herrialdeei erakutsiz Katalunia independente bat izatea interesatzen zaiela.

Gauzak horrela, zergatik atzeratu dira hainbeste hauteskunde “plebisitarioak” Katalunian? Independentzia aldarrikatzea erraza da, baina adierazpen hori sostengatzea ia ezinezkoa da kontrolatu nahi den lurraldean indarkeriaren monopolioa eskuratu gabe eta Estatu burujabeek dituzten eskuduntzak egikaritu gabe. Requejok garbi utzi du oraingoz Kataluniak ezin duela independentzia aldarrikapen bat sostengatu eta horregatik estatu egiturak sortzeko prozesuan barneratuta dago. Behin estatu egiturak sortuak eta independentzia aldarrikatzeko gehiengo demokratikoak izanda, independentzia aldarrikapena eta hori eusteko erronka etorriko da. Hori gertatuko balitz, ez litzateke lan erraza izango Kataluniarentzat nazioarteko ezagutza lortzea, izan ere, Espainia geopolitikoki munduko Inperio nagusian txertatuta dago, NATOko eta Europar Batasuneko kidea da. Alde horretatik, ezin daiteke espero aldebakarreko sezesio horren aitorten orokortu bat Mendebaldeko herrialdeen artean, bi arrazoiengatik nagusiki: a) aliatu baten aurka egitea litzateke, eta b) aurrekari bat izan daiteke edozein sezesio argudio demokratikoetan soilik sostengatzeko. Azken honek izua sor dezake independentzia bilatu dezaketen eskualdeak dituzten estatuetan, baina baita ere joko geopolitikoagatik arduratuak daudenetan, etsaien independentzia justifikatuko lukelako (Hego Osetia, Transnistria etab.).

Gauzak horrela, Kataluniako balizko independentzia batek bazterrak nahastuko litzuke Mendebaldeko herrialdeen artean, horregatik independentistek nazioarteari eta bereziki Mendebaldeari mezu garbi bat bidaltzen diote: ez larritu, independentziak kostu txikia izango du AEBentzat eta bere aliatuentzat, “etxe barneko” desanexio bat da. Hor dago zirikitua gerrarik gabe estatua lortu ahal izateko. Prozesua txukuna, demokratikoki eredugarria eta babes sozial oso zabala badu, alde bakarreko independentzia aldarrikapen baten ostean (edo lehenago) nazioarteko ezagutzak baino Mendebaldeko presioak aurreikusi daitezke Espainiari eskatuz A eskenatokia negoziatzeko, hau da, adostutako sezesio erreferendum bat. Presio hori zuzeneko eskuhartze bilakatu daiteke Kataluniak independentzia aldarrikapena sostengatu ahalko balu. Kasu honetan, Requejok zehazturiko “arazoa” sortuko litzaioke Europar Batasunari: zer gertatuko litzateke Europar Batasuneko mugen baitan dagoen eskualde horrekin? Zer gertatuko litzateke legediekin? Nazioarteko enpresekin? Garraioekin? Europar Batasuneko herritarrak diren biztanleekin?

Arazo horiez gain, beste espezifikoa batzuk sortuko lirateke, adibidez, Espainiak Katalunian zergak jasotzeari utziko balio Kataluniako independentzia adostu gabe, Espainiar estatuaren zorraren Kataluniari “dagokion” parte berea izaten jarraituko luke, baina lurralde horretako zergak jaso gabe, gutxi gora-behera Espainiako zerga-bilketa osoaren %20 inguru. Egoera horretan Madrilek ezingo luke bere zorra ordaindu eta horren aurrean EBetik eta Alemaniatik presio ikaragarriak iritsiko litzaizkioke legezko sezesio bide bat eskaintzeko Kataluniari. Hipotesi honetan Espainia eta Katalunia arteko negoziazio bat aurreikusi daiteke Europar Batasunaren bitartekaritzarekin autonomian sakondu eta sezesio erreferendum bat gauzatzeko. Kasu horretan, nazioarteko praxi enpirikoari begiratuta, erreferendumaren data, gutxieneko partaidetza eta gehiengo bereziak negoziatuko lirateke. Behin guztia adostuta Kataluniak independentzia lortuko balu, NATO eta Mendebaldeko herrialde demokratiko-liberal egonkortu batean lortzen den lehenengoa izango litzateke, tabu bat hautsiz eta beharbada etorkizunerako praxi berri baterako bidea irekiz.

Bibliografia

- JENNE, Erin K. eta BIEBER, Florian (2014): "Situational Nationalism: Nation-building in the Balkans, Subversive Institutions and the Montenegrin Paradox", *Ethnopolitics* 13(5): 431-460.
- BILLIG, Michael (2006): *Nacionalisme banal*. Catarroja (Valencia): Universitat de València.
- CONVERSI, Daniele (1990): "Language or race? The choice of core values in the development of Catalan and Basque nationalism", *Ethnic and Racial Studies* 13(1): 50-70.
- CONVERSI, D. (2000): *The Basques, the Catalans and Spain. Alternative Routes to Nationalist Mobilisation*. Reno: University of Nevada Press
- HÉBERT, Chantal -with Jean Lapierre- (2014): *The Morning After: The 1995 Referendum and the Day That Almost Was*. Toronto: Knopf.
- LINZ, Juan José, et alt. (1986): *Conflicto en Euskadi*. Madrid: Espasa-Calpe.
- SAIDEMAN, S. M., Dougherty, B. K. eta Jenne, E. K. (2005): "Dilemmas of Divorce: How Secessionist Identities Cut Both Ways", *Security Studies* 14(4): 607-636.
- SAMMUT, D. eta CVETKOVSKI, N. (1996): *Confidence-Building Matters: The Georgia-South Ossetia Conflict*. Verification Technology Information Center (VERTIC).
- SORENS, Jason (2012): *Secessionism. Identity, Interest, and Strategy*. Quebec: McGill-Queen's University Press.
- TAIBO, Carlos (1999): *Para entender el conflicto de Kosova*. Madrid: Los libros de la catarata.
- WALZER, Michael (1996): "La política de la diferencia: estatalidad y tolerancia en un mundo multicultural", *Isegoría* 14: 37-53.
- WHEATLEY, Jonathan (2012): "The Disruptive Potential of Direct Democracy in Deeply Divided Societies", in Marxer, W. (Ed.), *Direct Democracy and Minorities*, Wiesbaden: Springer VS, or. 64-73.